

Iruñeko II.  
**bertsopaper**  
lehiaketa

Antolatzaileak



**Iruñeko II. Bertsopaper Lehiaketa. 2021**

Saritutako lanak

# AURKIBIDEA

## **A kategoria**

(1.saria)

**Loitzate Goñi Elortza.** *Xauli* ..... 3

(2.saria)

**Loitzate Goñi Elortza.** *Baratzea* ..... 5

(3.saria)

**Ekhi Rojo Rodriguez.** *Garai berriak* ..... 7

## **B kategoria**

(1.saria)

**Nora Mendia Zabalza.** *Barne n/hormez*..... 9

(2.saria)

**Beñat Astiz Isasi.** *Kea darion bizitza honi* ..... 11


## **C kategoria**

(1.saria)

**Saioa Alkaiza Guallar.** *Habitat*..... 13

(2.saria)

**Eneko Fernandez Maritxalar.** *Olinpora bidean* ..... 16



LOITZATE GOÑI ELORTZA

***Xauli***

*A kategoria – 1.saria*

**Doinua:** *Eguzkiak urtzen du han goian.*

Bizpahiru urte nituelarik  
etxera zuten ekarri  
bularraldea xuria zuen  
ta gorputza berriz gorri  
janari aunitz jaten zuen ta  
beti zegoen egarri  
baina halere beti jostetan  
eta beti maitagarri  
gorputz iletsu eder horretan  
ilea adina zorri  
agindu eta deus erran gabe  
egunkaria ekarri  
txistu egin eta etortzen zen  
bera beti jostagarri  
kasu egiteko prest zegoen ta  
beti tente bi belarri.

Txiki-txikitan ekarri eta  
haurren eskutan hazia  
makilaren atzetik segika  
zegoen ongi hezia  
berekin mendira joateak  
bazeukan bere grazia  
inondik ere ez zen arraro  
baizik eta berezia  
egun batean gure etxera  
iritsi zen notizia  
entzundakoan sortu zitzaidan  
zapora hagitz gazia  
berak nire bizitzan baitzuen  
sekulako garrantzia  
inola ere Xaulik ez zuen  
heriotza merezia.



LOITZATE GOÑI ELORTZA

**Baratzea**

*A kategoria – 2.saria*

**Doinua:** *Batetikan korrozka*

Baratze txiki bat dut  
bortz bat metrokoa  
pixkat txikia baina  
niretzat nahikoa  
bizilagun den Joxek  
du sekulakoa  
nire baratza berriz  
ez dut gustukoa  
ez zait inoiz berdetzen  
letxuga hostoa.

Ez dut akotan zaintzen  
nire baratzea  
aurten ahantzi egin zait  
porruak jartzea  
horrelakotan hobe  
dendan erostea  
edo eta Joxeri  
batzuk lapurtzea  
bertzela ez da beteko  
behar den eltzea.

Ez da deuse erraza  
eta ezin uka  
etxera iristen naiz  
hagitz nekatuta  
ni gauza hauetara  
ez nago ohituta  
entsalada prestatzen  
ez dut asmatu ta  
nahiago dendakoa  
jada prestatuta.



EKHI ROJO RODRIGUEZ

***Garai berriak***

*A kategoria – 3.saria*

**Doinua:** *Azken arnasa eman nahi nuke*

Bukatu dugu gure herriko  
ikastolako zikloa  
atzean jada parke, mendi ,  
patioko intxaurrondoa...  
Nahiz ta batzutan kendua didan  
nik hain maite duda loa  
lagunartean ederra i zan da  
bizi dugun haurtzaroa  
intxaurrondoa utzi dut baina  
intxaurrez beterik noa

Lesaka utzi, Berara noa,  
institutuaren aro  
etxetik ez da urruti baina  
lehen baino urrutiago  
irakasleak berriak dira  
ikasgai pila bat dago  
bortz herritako lagun berriak  
Lesakatik haratago  
datorren garai berri hontako  
gogotsu eta prest nago!





NORA MENDIA ZABALZA

***Barne n/hormez***

*B kategoria – 1.saria*

**Doinua:** *Agur jesusen ama*

Lau horma, teilatu bat  
eta lur zabala  
izan liteke etxe  
arrunta normala.  
Baina motz geratu zait  
azalpen zitala  
etxe bat ez delako  
soilik materiala.

Etxe bat dira orden  
eta desordenak,  
arropa mendi zikin  
eta garbienak.  
Etxearen zimendu  
dira ondorenak:  
lau hormetan gordetzen  
diren oroimenak.

Nahiz eta egin egun  
batean euria  
eta etxean ahaztu  
gure berokia  
nahiz eta jarri kolpez  
ilun bekokia  
etxeak beti dauka  
guretzat tokia.

Etxez aldatzen zaren  
une guztietan  
dena ez duzu galtzen  
masail bustietan  
etxe bat ez da galtzen  
kanpoko normetan  
etxe bat daramagu  
barneko hormetan.



BEÑAT ASTIZ ISASI

***Kea darion bizitza honi***

*B kategoria -2.saria*

## **Doinua:** *Uztailaren hemeretzia*

Bostetik irten nintzen bigarren  
amatxoren sabeletik.  
Beharrak nahia gainditu zuen  
jaio nintzen egunetik.  
Morroi lanetan ibili ginen  
aukera genuenetik.  
Baieta pasaz, logeletatik  
mahaian eta komunetik.  
Mahaian sobera zegoen hura,  
sobera behar nuen nik.

Eskolarako denbora zena  
morrontzan nuen igaro.  
Halere, lana nik eskolatzat  
hartu izan dut lehenago.  
Bertan ikasi izan dut askok  
eskolan baino gehiago  
eta bizitzak oihukatu dit  
gero eta ozenago:  
Jabe batetik, jabe batena  
izatera asko dago!

Gaztetu eta mugitu nintzen  
lan berri baten bilara.  
Sakela hutsa batean itoz  
geundenez azken bolada.  
Goseak sarri garama gure  
muga ezkutuetara.  
Nik muga denak aztertu ditut  
azalduko dizut hara.  
Goseagatik lan egitera  
joan bainintzen mugara.

Hiritargoan bukatu nuen  
muga utzi eta hala.  
Lantegi batzuk ordezkatuta  
herriko larre zabala.  
Lanak ez dio loari uzten  
ni gustura har nazala.  
Gorputza eta nire burua  
zartatzen ditu danbala,  
edonoiz eror gaitezkeenaren  
sentsazioak bezala.

Sindikatuan bilatu nuen  
borrokaren hauspoz harpe.  
Sentitu nintzen zerbait eta  
zerbait handiaren parte.  
Goratu nahian soldata denak,  
salatuz hainbat aldarte.  
Ez neukan ezer militantzia  
ezagutu nuen arte.  
Ez zeukan horrek edukitzea  
ongien dasta dezake.

Soldaltak gora eta tartean  
makineri igoera.  
Ondoriotzat behargin eta  
desjabetuon sobera.  
Langabezia azkar gorantza,  
soldatak ezin sostenga.  
Lan sindikala mugatua da,  
eroriaz ikasten da.  
Sasiek itxi dute basoan  
pausuz lortutako senda.

Kea darien tximiniadun  
baso honetan ihesi,  
piztiek izen asko dauzkate  
eta bat da langabezi.  
Eror gaitezkeenaren sentsazioz  
gintuztelakoan hezi.  
Kontu korrontea zeroraino  
jaitsiz ahuleziz ahulezi.  
Berriz ere zerotik hastera,  
zeroetatik ihesi.

Ezereza dastatzeak dakar  
ezintasun adina nahi.  
Lortutako guztia galtzeak  
ez gintuen utzi lasai,  
ikertzen hasiz zein den muineko  
arazo, bide zein etsai.  
Erreformaren senda ez bada  
kateak askatzeko gai,  
baso guztia alda dezagun  
errotik sustraiez sustrai.



SAIOA ALKAIZA GUALLAR

## ***Habitat***

*C kategoria - 1.saria*

*Beste guztiek bezalaxe, bereziak ginela uste genuen*  
**Adrienne Rich**

# I.

## Alokairuzko pisuan

**Doinua:** *Zimur-zimur egina da*

1. Hormatzar zahartu hauek  
hizketan hasi balira,  
askok lurpea lukete  
betiereko desira.  
Alokairuzko kabian,  
bizitzaren narratiba,  
80 metro karratu,  
eskuz esku pasa dira:  
nola jendea atetik,  
hala balkoitik firfira...  
Familia, bakartia,  
adarduna, patrizida...  
Nor aritu da lehenago  
leiho beretik begira?

2. Bikote ezkonberria  
eztiki erromantiko  
-nahiz denoi iruditu  
nazkagarriki sadikopozik  
sartu da atetik,  
emanez goxo bi piko.  
Imajinatu ditzaket  
-trakeski ez naiz ariko  
ohean erdi etzanda,  
maiteminen parasito.  
Inork esan al du inoiz  
gezurretan baina tinko,  
sofa ajatu honetan,  
"maiteko zaitut betiko"?

3. "Betiko" xuxurlatuta,  
bihotza barnetik aika,  
erratza pasa artean,  
hautuei buruz ezbaika,  
aritu ote da inor  
problema aletzen gaika,  
pasillo triste honetan,

bonbilaren bat dirdaika?  
Joan al da malkoren bat  
dutxan urari jarraika?  
Azulejoen junturak  
zer ote dezake aipa?  
Hautsi ote da bihotzik  
izan nahi gabe zein nahita?

4. Ohe honetan aditu  
ote da inoiz ezetzik?  
Intziriek performatu  
dute, akaso, baietzik?  
Antzeztu da orgasmorik  
egon arren ondoezik?  
Aurkitu al du buruak  
sabai zurian ihesik?  
Malgukiek entzun dute,  
beste inork entzun ezik,  
irribarre konplizerik,  
sexu saialdi traketsik?  
Haurdu al da beldurrik?  
Erditu al da ametsik?

5. Logelan, lehen, gurutze  
adina errosario  
bazeuden arren zuria  
bihurtu da usadio.  
Neska gazte bat heldu zen  
pozaren mertzenario,  
mutilak utzi ostean  
zegoen pena-jario.  
Hezetutako paretak  
mamuentzat kalbario  
bilakatu zitzaizkion,  
goiz esan zuen "adio"...  
Ahaztutako kleenex batek  
triste zegoela dio.

6. Egon ote zen hementxe?  
Asmatu al du fedeak?  
Konpainia nahia al du  
naizen etxe-abereak?  
Kleenex zaharrak zer ditu  
urteak edo mendeak?  
-Zergatik du fantasia  
beharrezkoa jendeak...?-  
Ispiluan iltzaturik,  
nire bi begi xeheak,  
begizuloak direnez  
hain salatari trebeak,  
duda dut zeinenak diren  
nireak edo bereak?

7. Burua galdu-gordean,  
etxean ixil-gordeka,  
25 pauso dira  
salaraino eta buelta.  
Su txikian, berakatzak,  
patatak eta lau leka.  
Bitrozeramikak dauka  
parte handi bat erreta,  
inoiz hemen kixkali zen  
bizitza baten maketa.  
Dudati gerturatu naiz  
eta hatz-mamiz fereka,  
beste buruhauste baten  
kiratsa dakarkit eta.

8. Bazkaria egin eta  
ureztatu landareak,  
penak entzun ditzaketen  
izaki lotsagabeak.  
Sabaian trabeska daude  
lau armiarmen sareak,  
hemen nor izan garenon  
lekuko ustekabeak.  
Mahaia jarri du azpian  
neronen ahuldadeak,  
bi plater, bi edalontzi,  
inoiz ibili gabeak!  
Konpainiaren beharra  
baitauka bakardadeak.

9. Leihoaren bestaldean  
jotzen dabil gitarrista...  
Biziko al zen hementxe,  
noizbait, agian, artista?  
Artistagaia, bestela,  
sosaren malabarista?  
Bertsolari frustratua,  
idazle abangoardista?  
Edota nire gisako  
amesti positibista?  
Goraka begiratu dut,  
pozik jarri naiz, erdizka,  
begi-klixka egin baitit  
armiarmak dindilizka.

10. Hemen bizi zen poeta,  
apaletan hiztegiak,  
hitzaren eldarniotan  
topatu nahian egiak.  
Arrailik gabeko eleez  
deskribatuz sumendiak,  
itsasoak, belazeak,  
kaleak, amildegiak...  
86 udazken,  
andre horren aurpegiak...  
Egongelan eman zuen  
azken arnasa eriak,  
bizitzari eskertuta  
itxi zituen begiak.

11. Nik ere begiak itxi  
ditut une batez behintzat,  
birrikak bete artean,  
zabaldu zaizkit saihetsak.  
Jo dut apalategira,  
gaur ez nau hartuko presak,  
bere poemak nahasi  
ditzala barne lupetzak.  
Maitasun xuxurla bat da  
borobil daitezen ertzak,  
misterioz sinatuta  
kontrazalean, "zuretzat";  
ondorioztatu nahi nuke  
egin zuela niretzat.

12. Lerroka irakurri dut,  
nahikoa pose moloian:  
bukolikoki erreta  
zigarreta bat balkoian.  
Orain, kalera jauzika,  
bi oinak sartzeraz lohian,  
gerra eman asmoz noa  
bake faltsuen sasoiari.  
Bueltatuko naiz gerora,  
murgiltzeko paranoian,  
ea dauden niretzako  
ez diren kartak buzoian,  
beste norbait izateko  
nire etxeko saloian.

## II. Etxeari

### **Doinua:** *Munduko ilunabarra*

1. Buztinez edo izotzez,  
adreiluz, porlanez, zotzez,  
barrote herdoildu hotzez,  
zimendu sendo zorrotzez,  
izan ahal da etxea etxe,  
erosi zein izan sortzez.  
Arestirena otsoen kontra  
defendatu zen aihotzez,  
Agur Meabek txeraz zaindu du,  
hautsez, akaroen gosez,  
behin Izagirrek idatzi zuen  
"etxea egin bihotzez",  
nola defini dezake, baina,  
bakoitzak bere ahotsez?

2. Mendiko behatokian,  
kale-zulo, ordokian,  
azkeneko geltokian,  
txalet berdinen kopian  
kabia bertan egin liteke  
aski modu egokian.  
Batzuentzako, aldiz, ez al da

balaren punta lokian?  
Familiako gaitzespen hitzak,  
zimur batzuk bekokian,  
halakoetan, paretaz gaindi,  
kalera jo ikotian,  
etxeak zutik dirauelako  
maite gaituzten tokian.

3. Maitemina minbizi,  
bakardade analisi,  
denboraren paralisi,  
edota bikote krisi,  
denen estalpe izan liteke,  
trago txar edo gutzi,  
etxebizitzak izan dezake  
herio adina bizi.  
Non, nola eta zeinen ondoan  
pentsa dezagun lehenbizi,  
ate parera ez dugunik nahi  
inoiz ez dadin iritsi,  
guk erabaki dezagun nori  
zabaldu zein nori itxi!





ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

## ***Olinpora bidean***

*C kategoria – 2. saria*

**Doinua:** *Mundu honetan holako gauzak*

1. Tokio hiri olinpikoa  
zer mugimendu dagoen!  
Gimnasiako demak hasteko  
falta dira zenbait oren  
Bera da izar distiratsua,  
bera da hautagai goren  
Rankingeko lehen postuan dator  
azken emaitzen ondoren  
Ospatzen ere hasi daiteke  
lehiatzen hasi baino lehen

2. *“Ez da munduan bere indarra  
ta talentua duenik”*



*“Hainbertze itxoin duen unea  
ailegatu da azkenik”*



*“Onena da ta ez du izanen  
porroterako baimenik”*



*“Lehen posturako areriorik  
ez dauka seguruenik”*



Zeinek pentsatu dezake zerbait  
gaizki aterako denik?

**Doinua:** *Nehoiz ez da senditzen*

3. Jaio nintzela pasa  
dira bi hamarkada  
azal beltzarana ta  
etorkinen alaba  
Saihestu nahian bizitzak  
dakartzan mila traba  
gimnasiara zuzendu  
izan dut begirada  
Zerotik heldu arte  
olinpiadetara  
Baina Olinpoa zero  
edo infernua da?

4. Txikitatik jardun naiz  
nuen dena ematen  
ahaleginen neurriko  
emaitza ta garapen  
Lortutako garaipenen  
hamaika oroitzapen...  
Baina zein hauskorra naizen  
gogoratu dut aurten  
Nahiz ta zenbait domina  
leporatu didaten  
diztira duena ez da  
beti urre izaten

5. Hamahiru urterekin  
irten nintzen argira  
Munduko txapelketa,  
lehen dominen segida  
Urreak itsututako  
zaletuak begira  
Zenbat itxaropen, amets...  
eta espektatiba!  
Baina podiumetik  
itzultzean herrira  
fokoak itzali eta  
alarmak pizten dira

6. Apustu segurua  
zen nire hautagaitza  
Erakundeen babes  
babesleen eskaintza  
Baina lehenesten dugunez  
zuntz ta giharren zaintza  
nork artatzen du buruan  
sortu daitekeen gaitza?  
Hasieratik baita  
presio jasangaitza  
soilik inporta bazaigu  
azkeneko emaitza

7. Ta egon behar denez  
"forman" ta "osasuntsu"  
onartzen dira zenbait  
joera arriskutsu  
Egunero hamar orduz  
gimnasioan sutsu  
batzuentzat disziplina  
bertzeentzat abusu  
Olinpiar Jokotan  
irabazteko, usu  
uztai ezberdinetatik  
pasatu behar duzu

**Doinua:** Gure aurreko guraso zaharrak

8.

“Tokion ez da izan hainbertze huts egin duen izarrik”

*The New York Times*

“Bere egoak ez du onartu zuzenduriko iparririk”

**MUNDO**  
DEPORTIVO

“Olinporaino ez da helduko jainkosaren irribarririk”

DIARIO DE NAVARRA  
navarra.com

Hau kirola da eta ez dago dramatizatu beharrik  
Presiopean apurtutako jostailu bat da bakarririk

9. Hipotesiak zentratu arren belauneko oinazean parte hartzeko indarririk gabe gelditu da lehen fasean Presioaren biktima soil bat zetorrenaz ohartzean gizaki arrunt bilakatu da jainkoekin jolasean... Edo arrazoi ezberdinen bat al dago honen atzean?

**Doinua:** *Nehoiz ez da sentitzen*

10. Ezagun da izarrak  
horitu daitezkeela  
baina zein aise ahazten  
den orbanen ubela  
Neska beltzaranarekin  
zurikeria itzela  
Kazetari aunitz ez da  
gorritzen, dena dela  
Nahiz jakin lehiatzea  
marroi handia zela  
ziur nago prentsan berde  
ipiniko nautela

11. Ta gogorra den arren  
galtzaileen ahanztura  
sari latzagoa da  
ospearen jantzura  
Prentsaurrekoei izua,  
kritikari lastura  
Publikoki biluzteak  
sortzen duen azkura  
Presioak baitakar  
izaeren haustura  
sufirimendua bihurtzen  
zaigunean aztura

12. Oreka barra beti  
izan dut gustokoa  
Zaldia, akrobazi  
ezberdinen txokoa  
Lehen maitasun platoniko  
ta orain gorrotoa  
mozteraino arnasketa  
edo hilerokoa  
Urte pila daramat,  
ez naiz umemokoa  
Noiz lausotu zitzaizkidan  
jolasa ta jokoa?

13. Autoexijentzien  
beldurrekin mokoka  
Zenbat entrenatzaile  
zorrotz baina orroka!  
Elkarrizketak saihestu  
Mass Mediak gorrota  
Aspaldi moztu zitzaidan  
gozamenen txorrota  
Garaipenak ekarri  
badezake porrota  
bizirik irautea da  
benetako borroka

14. Guztiok maite arren  
txapel ta erramuak  
sari bihurtzen dira  
sufirimendu amuak  
Ikustezin diren kezka,  
itomen ta anuak  
Ez ditzagun bultza gure  
krisi ta hiltamuak  
Alferrik direlako  
nahigabe ta damuak  
pizten direnean buru  
barreneko mamuak

**Doinua:** *Mundu honetan holako gauzak*

15. Aurreiritzi, espektatiba  
ta prentsaren presioa  
arrakastaren B aurpegia  
ordaintzen den prezioa  
Konpetentziak bultzatutako  
"dominen" kolekzioa  
Sari ikusten ez den zauriak  
dakarrenez lesioa  
bere klaseak definitzen du  
jaso dugun lekzioa.